

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

2020ko uztailaren 1eko Ebazpena. Honen bidez, 2019rako deialdiaren oposizio fasearen lehen probako deia iragartzen da Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu publikoaren eskaintzaren deialdiko lehen probako lehen ariketarako deia iragartzen da

Gazteriaren Foru Erakundean enplegatu publiko gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onartzen dituen 2019ko maiatzaren 21eko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren 6.2 oinarrian xedatutakoaren arabera, oposizio fasea eratuko duten ariketen artean, 7.2.1 oinarriaren arabera, lehenengoa egiteko deialdia ALHAOn argitaratuz egingo da.

2020ko apirilaren 8aren ebazpenaren bitartez, oposizio fasearen probak bertan behera uztea iragartzen zen, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko 463/2020 eta 465/2020 Errege Dekretuetan ezarritako alarma egoera amaitu arte.

Alarma egoera amaitu ondoren eta deialdiko epaimahaiak eratuta, eta epaimahaiak probak egiteko egunak eta tokiak onetsi ondoren, oinarrietan ezarritakoa betez eta dagozkidan ahalmenez baliatuz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. 2019rako deialdiaren oposizio fasearen lehen probako deia iragartzea, 2018rako Gazteriaren Foru Erakundearen enplegu publikoaren eskaintzari dagokiola. Deia hurrengo lekutan, orduetan eta datetan izango da:

LANPOSTUA	LEKUA	EGUNA	ORDUA	IRAUPENA	GAIAK*
Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista	Europa Biltzar Jauregia Gasteizko Hiribidea 85, 01009 Vitoria-Gasteiz, Araba	2020/07/22	09:00	60'	1-22
Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista		2020/07/23	09:00	60'	1-24
Txaluparia		2020/07/24	09:00	90'	1-42
Sukaldaria		2020/07/24	09:00	90'	1-43
Espejo Aterpetxeko Zuzendaria		2020/07/24	09:00	120'	1-60

*Probak hasi baino ordu erdi lehenago irekiko dira ateak.

**Proban sartutako gaiak (Gai Komunak eta Espezifikoak).

Bigarrena. 2019rako deialdiaren oposizio fasearen bigarren probako deia iragartzea, 2018rako Gazteriaren Foru Erakundearen enplegu publikoaren eskaintzari dagokiola. Deia hurrengo lekutan, orduetan eta datetan izango da:

LANPOSTUA	LEKUA	EGUNA	ORDUA	IRAUPENA	GAIAK
Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista	Europa Biltzar Jauregia Gasteizko Hiribidea 85, 01009 Vitoria-Gasteiz, Araba	2020/07/22	10:30	60'	10-22
Sukaldaria		2020/07/24	11:30	90'	12-43
Espejo Aterpetxeko Zuzendaria		2020/07/24	11:30	90'	14-60

*Proban sartutako gaiak (Gai Espezifikoak).

Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista eta Txalupari lanpostuetako oposizio faseko bigarren proba lehenengo proba zuzendu ondoren iragarriko da, eta lehen proba hori gainditu duten pertsonak bakarrik deituko dira.

Hirugarrena. Probetan parte hartu ahal izateko, izangaiek onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean onartu gisa agertu behar dute.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 1a

Kultura eta Kirol diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO